BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4109

AGINDUA, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, 2012ko maiatzaren 28koa. Honen bidez, Ingurumeneko sailburuordearen 2011ko abenduaren 26ko Ebazpenaren kontra Hibai Urrutia Galanek aurkeztu duen gora jotzeko errekurtsoa ebazten da.

Ingurumeneko sailburuordearen 2011ko abenduaren 26ko Ebazpenaren bidez erabaki da Atxarteko eta Atxa Txikiko harrobien ingurunea lehengoratzeko Abadiñoko Udalak sustatuko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa ez egitea.

Hibai Urrutia Galanek 2012ko martxoaren 16an, Abadiñoko Udaleko Bildu udal taldearen izenean, 2011ko abenduaren 26ko Ebazpenaren kontra gora jotzeko errekurtsoa jarri zuen.

Gora jotzeko errekurtso horretan ondokoa eskatzen da: ebazteko ezinezkoa dela Atxarteko harrobian edozein berreskurapen edo betelanik egin organo kudeatzailearen baimenik izan gabe eta, baimen hori lortuta ere (edota beharrezkoa ez dela ebatziz gero), ezinbestekoa dela ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egitea, ondokoak kontuan izaki:

● Ez gaude harrobien ingurumen berreskurapenerako egitasmo baten aurrean, baizik eta isurtegi baten aurrean edo, gehien jota, betelan erraldoi baten aurrean. AHTaren lanetan sortutako hondakinentzako isurtegiari edo betelanari buruz ari gara eta harrobien berreskurapena azkeneko pausoa besterik ez da. Abadiñoko Udalak aurkeztutako proiektuak natur hondakinak (haitzak eta lur begetala) aipatzen dituen arren, Eusko Jaurlaritzaren ebazpenean lehen eta bigarren mailako aridoak erabiliko direla adierazten da.

● Espedientean ez da agertzen uren organo erantzulearen ez txostenik ez baimenik, nahi eta beharrezkoak izan, ADIFek eta Abadiñoko Udalak eskatuta idatziriko txostenean aipatu legez.

● Betelana, isurtegia edo berreskurapena izanda ere, edozein kasutan derrigorrezkoa da ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egitea. Hori ondokoak aintzat izaki:

– Urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren (proiektuen IEE Legearen testu bateratua) I. eranskineko 9. taldeko 6. epigrafean jasotakoa.

– Eragina baitu Natura 2000 sarean.

Horrez gain, hori jakinekoa da Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako Zuzendaritzaren eta Artaza ingenieritzaren txostenetan.

● Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egingo balitz ere, une honetan ezingo litzateke era honetako egitasmorik garatu Urkiolako parke naturalean, organo kudeatzailearen baimenik ez duelako oraindik.

Urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren (beraren bidez onartu zen proiektuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina) 3.2. artikulua aplikatuta, honako proiektu hauek eraginaren ebaluazioa beharko dute, soilik kasu bakoitzean dagokion ingurumen organoak hala erabakitzen badu:

a) II. eranskinean jasotako lanak, instalazioak edo beste edozein jarduera egiteko proiektu publikoak edo pribatuak.

b) I. eranskinean jasotako proiektu publiko edo pribatuak, baldin eta eragin zuzena edo zeharkakoa badute Natura 2000 sarearen espazioetan.

Proiektuaren norainokoa Abadiñoko Udalak eskatuta Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategien Zuzendaritzak ingurumen-organoari igorritako agirian dakar, eta bertan azaltzen da Atxarte eta Atxa Txiki harrobietako zuloak betetzean datzala funtsean. Harrobion jarduera 90. urtean amaitu zen. Betelana egiteko ADIFek sustatzen duen Gasteiz-Bilbo-Donostiako Abiadura Handiko Trenaren linearen laneko materialak bakarrik erabiliko dira eta halaxe meatze lanek eragindako espazioa berreskuratuko da.

Abadiñoko Udalaren eskabidea ikusita, ingurumen-organoak ezin du onartu betelanetarako materialen artean sustatzaileak proposatutakoak ez direnak.

Horrelaxe definitutako proiektua bat dator urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.2. artikuluan jasotako kasuekin eta ez aipatutako arauaren I. eranskinean jasotako kasuekin.

Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziopean jartzeko beharra erabakitzeko, ingurumen-organoak urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren III. eranskinean ezarritako irizpideak kontuan hartu behar ditu, behin proiektuak eragindako administrazioak, pertsonak eta erakundeak kontsultatuta.

Ingurumen-organoak kontsultatutako administrazioen artean Uraren Euskal Agentzia dago.

Espedientean dauden txostenak, kontsultatutako administrazioek emandako txostenak, ez dira lotesleak.

Dena den, ingurumen-organoak txosten horiek kontuan hartu ditu eta esplizituki aztertu ditu bertan jasotako argudioak, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziopean jartzearen aldekoak eta kontrakoak.

Errekurritutako ebazpenean argi eta garbi azaltzen dira erabakia hartzeko irizpideak eta horiek urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren III. eranskinean daude jasota.

Ebazpena proiektua ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziopean jartzearen ingurukoa da bakarrik, baina bertan ez da baimenik ematen betelanak egiteko edo meatze jarduerek eragindako espazioa zaharberritzeko, beraz, ez zaio baimenik ematen sustatzaileari proiektua egiteko.

Ingurumen-organoak ebazpen errekurrituaren bidez hartutako erabakiak ez du behartzen organo eskudunek baimenak ematera edo ez ematera. Baimen horiek, hala badagokio, honako prozedura hauetan tramitatu daitezke: hondakinen kudeaketa, meatze jarduerek eragindako eremuak berreskuratzea edo Urkiolako parke naturalaren eremu babestuaren kudeaketa.

Organo honek gora jotzeko errekurtsoa ebazteko eskumena du, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Xedapen hauek ikusita: Euskal Herriko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Proiektuek Ingurumenean duten Eraginaren Ebaluazioaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua; 629/2009 Dekretua, abenduaren 22koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea; eta oro har nahiz bereziki ezartzekoa den gainerako araudia.

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Zatika onartzea Hibai Urrutia Galanek, Abadiñoko Udaleko Bildu udal taldearen izenean, Ingurumeneko sailburuordearen 2011ko abenduaren 26ko Ebazpenaren kontra jarritako gora jotzeko errekurtsoa. Ebazpenaren bidez erabaki da Atxarteko eta Atxa Txikiko harrobien ingurunea lehengoratzeko Abadiñoko Udalak sustatuko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa ez egitea. Eta esangura horretan, errekurritutako ebazpenaren lehen atalaren laugarren epigrafean jasotako baldintza aldatzen da, eta honelaxe geratzen da:

● «Betetze-lanak egiteko, indusketa lanetatik ateratako materialak erabiliko dira, baldin eta eduki kutsagarriak otsailaren 4ko 1/2005 Legearen, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoaren, I. eranskinean jasotako EBA-A ebaluazio-balio adierazleen azpitik badaude bakarrik».

Bigarrena.– Hibai Urrutia Galanek jarritako errekurtsoan jasotzen diren gainontzeko alegazioak ez onartzea.

Hirugarrena.– Agindu hau Hibai Urrutia Galani, Abadiñoko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategietako Zuzendaritzari eta Urkiolako parkea kudeatzen duen organoari jakinaraztea.

Laugarrena.– Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz, administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salari zuzenduta; ebazpen hau jakinarazten den biharamunean hasi eta bi hilabetekoa izango da horretarako epea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 28a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.